

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure aplikazioak hainbat funtsezko jarduera ditu: produkzioa, arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak.

Produkzioaren aldetik, gure enpresak produktuaren, hau da, pultserareen ekoizpenari emango dio garrantzia. Gure aplikazioaren helburu nagusia larrialdi batean dauden pertsonen laguntzea eta babesa ematea da.

Beste aldetik, aplikazioan sortzen diren arazoak konpontzeko gai izango gara, plataforma teknologikoak kudeatu, mantendu eta sustatuko ditugu. Nahi izanez gero telefono zenbaki bat daukagu eta edozein arazo izanez gero telefono zenbakira deitu dezakete erabiltzaileek eta segituan jarriko ginateke harremanetan beraiekin arazoak konpontzeko.

Azkenik plataforma edo sareko jarduerak: hainbat hitzaldi antolatuko ditugu. Hitzaldietako bat gure proiektuak nola funtzionatzen duen esplikatzekoa izango da, zeren eta ez da hain erraza. Horrez gain, erabiltzaileei larrialdi egoera batean nola jokatu behar duten esplikatuko zaie eta gainera, hori gutxi ez balitz, pertsona famatuek gure aplikazioa publizitatuko dute.